


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentek % 0,9 egin dute gora, 2022ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmentei egonkor eutsi zaie

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak % 0,9 handitu ditu salmentak, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegi-eraginak atera ondoren eta prezio finkoetan, Eustaten datuen arabera. 2021eko hirugarren hiruhilekoaren aldean salmentek izan duten igoera, gasolina-zerbitzuguneak kontuan izan gabe, % 1,1ekoa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, 2022ko hirugarren hiruhilekoko salmenten indizeari egonkor eutsi zaio; hiruhilekoen arteko aldakuntza % 0,0koa izan da.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreen arabera, 2021eko hirugarren hiruhilekoari dagokionez, *Gainerako produktuetan* (elikadura gabe) prezio finkoetako salmentek % 1,9 egin dute gora, 2022ko hirugarren hiruhilekoan. *Elikagaien* salmentak ere gora egin du urte artean, baina neurri txikiagoan, % 0,3koa izan baita igoera. Bestalde, *Automobilgintzarako erregaia*ren sektorean, salmentek % 1,9 egin dute behera.

2022ko bigarren hiruhilekoari dagokionez, urtaro-eraginik gabe eta prezio finkoetan, *Elikagaien* salmentek % 0,7 egin dute gora. Bestalde, *Gainerako produktuen* eta *Automobilgintzarako erregaiei* sektoreetan, salmentek % 2,8 egin dute behera, bi kasuetan.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2022/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,9	0,0	3,7
Araba/Álava	-2,7	-1,6	-0,3
Bizkaia	0,5	0,1	3,3
Gipuzkoa	2,9	0,6	6,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	0,3	0,7	0,1
Elikagaien saltoki espezializatuak	-3,2	-1,0	0,6
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	2,0	0,6	-0,1
Gainerako produktuak	1,9	-2,8	7,1
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	1,4	-1,6	11,0
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	5,6	1,7	12,2
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	1,3	0,5	-1,7
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-6,0	-1,3	-6,3
Automoziorako erregaiak	-1,9	-2,8	3,0
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	1,1	-1,2	3,7
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	0,4	0,7	1,6

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteko arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/At(4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2022ko Azaroaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikagaien sektoreko txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako merkataritzaren* salmentek (besteak beste, fruta-dendak, harategiak, arrandegiak...) behera egin dute, 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 3,2. *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatua* (batez ere, supermerkatuak eta hipermerkatuak), berriz, % 2,0 handitu dira salmentak.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, 2022ko hirugarren hiruhilekoko salmenten bilakaera, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ez da homogenea izan. *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (besteak beste, etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak), salmentek % 5,6 egin dute gora; *Pertsonen ekipamenduetan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak), % 1,4, eta, azkenik, *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatua* (besteak beste, kirol-produktuak, jolasak edo jostailuak) salmenten igoera % 1,3koa izan da. *Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatua* sektorean (korrespondentzia edo Internet), salmentek % 6,0 egin dute behera.

Lurralde historikoen arabera, 2022ko hirugarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko % 2,9ko igoera izan du Gipuzkoan eta % 0,5ekoa Bizkaian; Araban, aldiz, salmentak % 2,7 jaitsi dira. Hiruhilekoen arteko terminoetan, salmenten bilakaera positiboa izan da, era berean, Gipuzkoan eta Bizkaian, % 0,6ko eta % 0,1eko igoerak izan baitituzte, hurrenez hurren. Hala ere, Arabako salmentek % 1,6 egin dute behera, urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AE osoan, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean okupatuen kopurua % 0,4 igo da. 2022. urteko bigarren hiruhilekoaren aldean, %0,7 igo da.

2022ko lehen hiru hiruhilekoetako balantzea

Txikizkako sektorearen salmentek, 2022ko lehen hiru hiruhilekoetako metatuan, % 3,7 egin dute gora, hiru azpisektoreen ekarpen positiboekin: Elikagaiak (% 0,1), Gainerako produktuak (% 7,1) eta Automobilgintzarako erregaia (% 3,0).

Lurraldeka, Gipuzkoak % 6,1 egin du gora eta Bizkaiak, % 3,3. Arabak, berriz, % 0,3 egin du behera.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **% 94,9ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62